

**ELIGE A TU
DELEGADA**

Sindikatu guztiak ez gara berdinak

UGTREKIN IRABAZIKO DUZU

UGTk Administrazio publikoan LORTUTAKOA:

- %9,5eko soldata hazkundera 2024ra arte, izozketarekin amaituta.
- %9,5eko soldata hazkundera 2024ra arte, izozketarekin amaituta.
- Langile laboralentzako zein estatutupeko langileentzat zabaldutako errelebo kontratua.
- Baimen eta lizentzien hobekuntza.

UGTk Osakidetzan LORTUTAKOA:

- Lekualdatze-Lehiaketa Irekia eta Iraunkorra.
- Garapen profesionala maila guztietan.
- Barne-mugikortasun horizontala eguneratzea eta lan-eskaintza publiko guztien aurreko lekualdatze-lehiaketa.
- Pribatizazio prozesu batzuk geldiarazi eta atzera eragitea.
- Lehen Berdintasun Plana sinatzea. Barne-mugikortasuna genero indarkeriarengatik eta barne-mugikortasun prozesuak.
- Lan osasunaren defentsa: Arrisku psikosozialen ikerketa.
- Lan osasunaren defentsa: Arrisku psikosozialen ikerketa.
- %4ko Igoerarako Akordioa (Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa, Osasun Mentaleko sarea, administrariak eta Tolosaldeko ESia)

POR · PARA · CON · DE · DESDE · ENTRE

TODOS

Hauteskunde sindikalak OSAKIDETZA



Sindikatu guztiak ez gara berdinak

**aukeratu IRABAZTEA, aukeratu ESKUBIDEAK,
aukeratu UGT**

**AUKERATU ZURE
ORDEZKARIA**

euskadi.ugt-sp.es



UGT

Zerbitzu Publikoak



**ELIGE A TU
DELEGADA**

UGT

Zerbitzu Publikoak



ZURE BOZKA, EZINBESTEKOA

UGT aitzindaria izan da Osakidetzako langileen eskubideen defentsan 2013 urtetik. Borroka sindikalari esker, aurrerapen garrantzitsuak lortu dira, baina oraindik ere, bide luzea dugu aurretik.

Une erabakigarrian gaude: **ZURE BOZKA EZINBESTEKOA DA. UG Tk** irmo jarraitzen du lanean Euskal Osasun Publikoa duinagoa egiteko eta defendatzeko. Gure aldarrikapen eta lorpen nagusiak bildu ditugu, zure alde borrokan nor ari den erabaki eta, horren arabera, aukera dezazun.

SOLDATAK ETA LANALDIA

Baldintza Justu eta Duinak

Gure ahaleginek guztion lan-baldintzak hobetzea dute helburu. Gure proposamenak honakoak dira:

- Lanaldiaren murrizketa progresiboa, asteko 32 ordukoa izan arte.
- Soldata-igoerak Osakidetzan.
- Erretiro partziala onartzea estatutupeko langileentzat.
- Kategorien arteko soldata-osagarriak ez bereiztea
- Telelanari eta lanpostuak osasunaren edo adinaren arabera egokitzeari buruzko akordioak.

Behin-behinekotasun gutxiago, Aukera gehiago

Behin-behinekotasuna %8tik behera murriztea. Horretarako, honakoa defendatzen dugu:

- LEP sistema berriak eta aukeraketa-prozesu inpartzialak.
- Lan maila berriak eta plantillak gaztetzea.
- Birjarpen-tasa bertan behera uztea.

Aukeratu UGT Osasun Publikoa babesteko

Ekintza sindikala eta Mobilizazioa

UG Tk privatizazioak gelditzeko, murrizketen aurka borrokatzeko eta lan-baldintzak hobetzeko lanean dihardu. Gure konpromisoa da:

- Plantillak handitu eta behin-behinekotasuna murriztea.
- 15/97 Legea indargabetzea, kontrolik gabeko lankidetzak publiko-privatua ahalbidetzen duena. .
- Lehen Mailako eta Ospitaleko Arreta hobetzea, baliabide gehiagorekin.
- Itxitako Etengabeko Arreta Uneak berrirekitzea eta asistentzia-presioa murriztea, osasun mentala ere indartuta.

Zure babesa behar dugu. ZURE BOTOA EZINBESTEKOA DA, sindikatu guztiak ez garela berdinak

BERDINTASUNA ETA LAN OSASUNA

Osakidetzako Berdintasun Plana

Lan berdintasuna gure helburu nagusienetako bat da. Exijitzen dugu:

- I. Berdintasun Plana bere osotasunean martxan jartzea.
- Sexuaren araberako eta sexu-jazarpenaren aurkako protokoloa kontrolatzea.
- Genero-indarkeriaren biktimak babestea.
- Adingabeak eta adineko zaurgarriak zaintzeko lanaldi-murrizketa ikuskatzea.

Prebentzioa eta Segurtasuna

Lan-ingurune seguruagoak bermatzeko, honakoa proposatzen dugu:

- Laneko Arriskuen Prebentziorako Plan berria negoziatzea.
- Etorkizuneko pandemietarako protokoloak prestatzea, esperientziatik ikasiz.
- Osasun-arloan Erasoak Prebenitzeko Plana hobetzea.
- COVID-19a laneko gaixotasun gisa aitortzea.